

# BEZEROEKIKO HARREMANAK

Ikerketa batzuen arabera, bezero berri bat lortzea bezero bat mantentzea baino bost aldiz zailagoa da. Horregatik, garrantzi handiagoa emango diogu gure bezeroak mantentzeari, berriak lortzeari baino. Horrekin ez dugu esan nahi bezero berriak lortzeari uko egingo diogula.

**JUBIZIRIK** negozio ideiarene ezaugarri nagusienetariko bat, bezeroekiko harreman zuzen pertsonala da. Udaletxei eta egoitzei gu geuk jakinaraziko diegu informazioa, harreman indartsuagoa eta estuagoa sortzeko.

Informazioa gure bezero potentzialeei; hau da, hirugarren adinekoei helarazteko eskuorriak eta ahoz ahoko informazioa erabiliko ditugu bereiziki. **Web-gunea** <https://jubizirik-1.jimdosite.com/> (klikatu sartzeko) ere izango dugu, zeinaren bitartez gurekin kontaktuan jarri ahalko diren erabilgarri eta aldiro berrituta egongo delako, baina kontzienteak gara gure bezeroek horrelako teknologiak gutxiago erabiltzen dituztela. Hala ere, ekintzen eta proiektuen inguruko informazioa gazteei ere helarazi nahi diegunez **sare sozialak** izango ditugu zeinetan edozein proiekturen berri emango dugu eta parte hartzera animatuko ditugu, adibidez Instagram edo TikTok **@jubizirik**.

Hasiera batean, asko mugituko gara eta oso aktiboak izango gara gure proiektua ezagutzea oso garrantzitsua dela uste dugulako. Denbora aurrera joan ahala zein hedabiderekiko **irisgarritasun** gehien lortzen dugun aztertuko dugu, nahiz eta besteei ere garrantzia eman, horri bereiziki lehentasun handiagoa emango diogu.

Udaletxeak eta egoitzak **bitartekari** bezala erabiliko ditugu. Guk beharrezkoa den informazio guztia bidaliko diegu eta haien gure proposamenak aztertu ondoren, udal-herriko adin nagusiko bizilagunei gure proposamenak helaraziko dizkiete, beti ere inolako konpromesurik

gabe. Bizilagun horiek gure ekintzak egin nahi izatekotan udalak eta **JUBIZIRIK**eko lan-taldeak egitasmo konkretu bat eratuko du eta behin amaituta bezero potentzialekin bilduko gara eta planifikatutakoa zehetasun guztiakin aurkeztuko zaie. Bilera horretako helburu nagusia haien **lehentasunak** eta **iradokizunak jasotzea**, baita elkar hobeto ezagutzea izango da.

Bezeroek egindako ekintzekin pozik dauden ala ez jakiteko, hilean behin **bilera** bat antolatuko dugu proposamen berriak edo kexak entzuteko. Haien iritzia lagungarria izango da hobekuntzak egin ahal izateko, haien egindako eskakizunak betetzen baditugu, **elkarrekiko konfidantza** lortuko dugu. Horrez gain, email ([jubizirik@gmail.com](mailto:jubizirik@gmail.com)) eta telefono (690 352 883) zenbaki bat izango dugu gurekin kontaktuan jartzeko edota informazioa helarazteko.

Gure iritziz, lan eredu horrekin bezero bakoitzari hari egokitutako zerbitzua eskainiko zaio, horregatik esaten dugu **JUBIZIRIK** oso enpresa malgua eta irekia dela.